


Errobotik euskal itsasbazzterera

Ibilbide guziak eskuragarri Turismo Bulegoetan ►►



MAILA
3

ERTAIN



ADARREKO ITZULIA

LUHUSO

Mendi ibilaldia artzainen lurraldeetatik, panorama miresgarria eskaintzen duen Adarre mendi kaskoraino joaiten dena. Ibilbideen ugartitasunak distantzia eta zailtasuna egokitzeko parada emaiten du. Ibitari entrenatu eta mendi lasterketazaleendako itzulia (trail). Erreferentziako iraupena ibitariarentzat neurtua da.



Ikastaroan

Abiatzeko bidea :

Herri barnetik, frontoiaren ondoko aparkalekutik.

Frontoiaren ondoko aparkalekutik **D** 633770 - 4797249, Heletarako RD 119 bidea hartu 200 metroz. Eskuinean den bide ttipia hartu **1** 633981 - 4797178. Bide hau haranetik urruntzen da poliki-poliki, goi larreetara hurbiltzeko. Igaite itzaltzu baten ondoren, bide mundrunatua utzi eta ezker aldean den pista igan larreetaruntz, hesi kanadarretik pasatuz **2** 634066 - 4796189. Ibilaldia Luhusoko gainetara doa. Borden ugartitasunak artzaintza jardueraren garrantzia erakusten du. Mendi gainetarik segitu Hartxandegi **3** 635538 - 4796200 izeneko lekuan den urtegirat. Eskuinaldeko pista segituz, mendixkaren itzulia egin Adarre mendiko Urtsoleporaino **4** 636108 - 4795690 joaiteko. Eskuinera segitu hesiaren bazterretik joanez. Pistak xendra baten itxura hartzen du. 70 metroz segitu eta gero, mendi gainetatik kaskorat igaiten den ezker aldeko xendra hartu. **5** 636513 - 4795083 Adarreko lepotik, kontrako mazelan den jaitsiera hasi. Xendra Xantxoko leporat doa zuzenki. Leporat **6** 636807 - 4794941 iritsi baino lehen, pago oihan batetik doan xendratik segitu ezker aldean, pista zabalago batera heltzeko. Zuzen segitu bide-adarkatze bateraino. Bide-adarkatze horretan, ezkerreko xendra hartu, mendi mazela-

0.25

0.50

1.12

1.42

2.15


2.28

2.40

3.00

3.50

tik Adarreko itzulia egiteko eta Urtsolepora **4** joaiteko. Handik, eskuineko pista segitu arditegi arraberritu batera heltzeko. Ezkerrean doan pista harritsua hartu lehen bihurguneraino **7** 636138 - 4796072, gero beste arditegi baten aitzinetik pasatzen den pareko pista hartzeko. Beste pista horrek arditegi hondatu **8** 636130 - 4796260 batera eramaiten du. Arditegitik ezkerrean hartu iralekuan barna. Mendixkaren ipar-mazelatik doan xendra ttipia hartu beste pista batera heltzeko. Pista horretan segitu Hartxandegi izeneko lekuan den urtegirat iritsi arte **3**. Joaiten hartutako ibilbide berean segitu parean, mendi gainetarik artzainen lurraldeak zeharkatzen dituen ibilbidean. Bigarren bidegurutzean, etxe **9** 634427 - 4796159 baten ondoan, laborantza gun bat zeharkatzen duen pista hartu eskuinaldera, beste pista batera jaisteko **10** 634099 - 4796933. Bide horretan segitu ezker aldeetik iganez. Muturrean, joaiten hartutako bidera joan eskuinaldera **11** 634171 - 4796223 eta herrira berriz jaitsi.



©IGN

D Luhusoko Frontoia

GPS : 633770 - 4797249



3.50 oren

Seinaletika

D-tik **11**-rat

13 km

+655 m
 -655 m

Huts egin behar ez dena

- Bista panoramikoa
- Bordak
- Pottokak

Ehiza garaian saihestekoa

LUHOSO

Lapurdiko mendixka oihantsuetan kokaturiko herri tipia da Luhoso. Larralde eta Beheran pilotari famatuena aberria. Luhusoko herria 1834ean handitu zen, feldpath eta kaolin meatzeen aurkikuntzarekin batera. Gaur egun harrobia eta lantegia hetsiak dira, baina meategien hondakinak ikus daitezke «Irrituenea» etxean. Errobiren ibaiadar, bi errekek zeharkatzen dute herria: Mauline eta Harrixuria izeneko errekek irina ekoizteko eiherei indarra emaiten zieten, gaur egun oraindik ere hondakin zonbaitsu ageri direlarik. Men-

diko errekek elikatu Errobiko ur hotz eta oxigenatuek arrain fauna aberatsa eskaintzen dute arrantzaleen zoriona eginez: amurruak, aingirak, izokinak...

Xehetasun gehiagorentzat:



Kanboko Turismo Bulegoa

Herriko etxeko etorbidea – 64250 Kanbo - Tel : 05.59.29.70.25

Mail : info@cambolesbains.com - Web : www.cambolesbains.com



« Guides randos 64 » zerrenda osoa: www.rando64.fr

www.rando64.fr

oinez, bizikletez edo zaldiz, Biarno eta Euskal Herria deskubritu!

ZUEN IBILALDIA ONGI HAUTATU

Maila eta seinaleak



Desmaila: ibilaldi bakoitzarentzat, igaite guziak kalkulatuak dira.



Iraupena: ibilaldi bakoitzaren iraupena adierazgarri gisa erabiltzen da. Ibilaldiaren luzetasuna, desmaila eta menturazko zailtasunen arabera neurtzen da.



Ibilaldiak

Ibilaldiak zailtasunen arabera sailkatuak dira, eta gida orri bakoitzean koloreen bidez desberdinduak dira.

Ibilaldien FF-ren gomendioak segitzen ditugu.

▶ 2 oren baino guttiagoko ibilaldia
Idealki familiarekin egiteko, ongi markatuak diren bideetan.

▶ oren baino guttiagoko ibilaldia
Ibiltari ohituentzat. Batzuetan desmailak edota guneko kiroitsuak.

▶ oren baino guttiagoko ibilaldia
Familiarekin egin daiteke. Bideetatik, batzuetan pasabide zailagoak.

▶ oren baino gehiagoko ibilaldia
Ibiltari esperientziadun eta kiroitsuentzat. Ibilaldi luze edota zailak (desmaila, pasabide gogorrak).

Balizak segitu bide onean egoteko

Xendren balizak	Herri eta PR [®] -en xendrak	GRP [®]	GR [®]	VTT	Zaldiketa
Norabide ona					
Ezkerre hartu					
Eskuinera hartu					
Norabide txarra					

GR[®], GRP[®] eta PR[®] Ibilaldien Frantses Federazioak erregistratu markak dira.

Ibilaldi batzu kalitate eskakizunen arabera hautatu ditu Ibilaldien Frantses Federazioak, PR[®] labelaren pean.



Bidezidor seinaleak

Bideen GPS helbideak

Erreferentziako neurria:
WGS 84 - UTM 30T
Ibilbideen GPS bideak
telekargatu:
www.rando64.fr

GOMENDIO BALIAGARRIAK

▶ Meteo 08 92 68 02 64 edo 32 50 edo www.meteofrance.com.

Errobotik euskal itsasbazterrerako bideetan zehar ibiltzeak errespetuzko jarrera bat eskatzen du natura eta lurralde horiek biziarazten dituzten gizon eta emazteei begira. Arau batzu errespetatu behar dira.

Natura zaindu

▶ Zuen hondarkinak atxikitzeke zaku bat hartu ▶ Fauna eta flora errespetatu ▶ Balizak dituzten xendretan egon

Zuen burua babestu

▶ Material egokirik gabe ez joan
▶ Bakarrik joaiteak arriskuak ditu
▶ Erreketatik datorren ura ez edan
▶ Meteo so egin

▶ Europako urgentziako deia 112

— *Jarduerak eta jendeak errespetatu* —

▶ Hesiak berriz hetsi
▶ Xakurrarekin joaitea ez da komeni. Kasu guzietan, sokatik atxiki.
▶ Suak debekatuak dira
▶ Ibilaldien bazterretan diren jabego pribatuak errespetatu

Kasu !

Usa ehiza garaian (urritik azarorart), ehizaldietan (urte osoan zehar) eta lurra erretzean (abendutik martxorart), ibilaldi batzu saihestu behar dira. Turismo bulegoetan xehetasunak galdegin.

Egiteko gomendioak:



Gure xendrei buruzko iritziak

Eco-veille

Proposatzen dizkizuegun ibilaldiak arreta handiz hautatuak izan dira. Bideei dagokienez, zuen iritzi eta oharrak ongi etorriak dira atxikitzea edo mantentzea ahalbidetzeko. Zuen iritziak emaitera gonbidatzen zaituztegu Errobi Herri Elkargora deituz, 05 59 93 65 94.

Ecoveille[®] orria telekargatzen ahal duzue: www.rando64.com/ecoveille

Ecoveille[®].behaketa orri bat ere eskuratzen ahalko duzue.

www.rando64.fr

oinez, bizikletez edo zaldiz, Biarno eta Euskal Herria deskubritu!